

IKASTURTE BERRIAN EGUTEGIRIK GABE

Ikasturte hasierarekin batera, Zorione Etxezarraga gerenteak haurreskoletara bidali zuen mezuan jakinarazi zuen, orain arte uztailean izaten genuen egutegia irailean zehar izango genuela. Atzerapenaren arrazoia ,eguteagian aspektu batzuk zehaztu nahi dituela adierazi zuen.

LAB sindikatutik ondorengo salatua nahi dugu

- **Atzerapen hau hezitzaileekiko eta familiekiko errespetu falta handia dela uste dugu eta orain arteko prozeduraren haustura bat. Ondorioz, lana eta bizitza pertsonala uztartzeko zailtasunak sortzen ditu, bai hezitzaileona eta haurreskoletako familiaena.**
- **Alde bakarreko erabaki berri hau, ez da inongo mahaietan proposatua ezta adostua izan. Beraz, alde sozialarekin ez da kontrastatua izan.**

Berriro ere, hezkuntza saila haurreskolekiko begirune falta erakusten ari da, betebeharrak garaiz ez da ari betetzen eta negoziaketarako borondate falta erakusten du.

